

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

56/2022 Mozioa, ekainaren 8koa, hondakin solidoen zati organikoa konpostatzeko dagoeneko lehen sektoreko kudeatzaileen bidez garatuta dagoen proiektuari jarraipena ematekoa, hainbat jarduera eginez

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko ekainaren 8an egindako osoko bilkuran, mozio hau onetsi zuten:

56/2022 Mozioa, ekainaren 8koa, hondakin solidoen zati organikoa konpostatzeko dagoeneko lehen sektoreko kudeatzaileen bidez garatuta dagoen proiektuari jarraipena ematekoa, hainbat jarduera eginez.

Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarraipena eman diezaiola hondakin solidoen zati organikoa konpostatzeko dagoeneko lehen sektoreko kudeatzaileen bidez garatuta dagoen proiektuari, eta, zehazki:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen organoan dagozkion kudeaketak egin ditzala kudeaketa-eredu honen zehaztapena arautze aldera.

b) Nekazaritza-konpostatze arloko prestakuntza-saioak berriz ere egin ditzala interesa duten lehen sektoreko pertsonentzat, arautze-ezaugarriak nabarmenduz.

c) Azterlan bat egitea susta dezala, hondakin solidoen zati organikoa konpostatzeko eredu deszentralizatu ezar dezaketen Arabako Lurralde Historikoaren eremu geografikoak identifikatzeko helburuarekin.

d) Nekazaritza-praktikak ahalbidetu eta babestu ditzala, laborantza-lurzoruen emankortasuna mantentzen eta berreskuratzen laguntzeko, lehen sektoreko errentagarritasuna hobetuz eta ekonomia zirkularra bultzatuz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 8a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA